

KIROL TXARTELAREN ETA ALTZAKO KIROLDEGIAREN INGURUKO KONTROL MOZIOA

Josu Mirena Ruizek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Kirol Txartelaren eta Altzako kiroldegiaren ingurukoa, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Gune Publikoko Batzordean abenduaren 12an egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Azken udalbatzarrean Kirol Txartelaren prezioa % 5 igo zen (helduen, familien eta federatuen kasuan). Udal Gobernuaren proposamenak ez zuen kontuan hartzen Altzako kiroldegiaren itxiera. Badakigu kirol taldeak beste kiroldegi batzuetan birkokatu egin dituztela, baina gure kezka Altzako Kirol Txartelaren erabiltzaileen egoera da. Hau da, Kirol Txartela edukitzeagatik gehiago ordaindu beharko dute, eta gainera, beste udal kiroldegi batera joan beharko dute. Donostia Kirola Udal Patronatuak, bestalde, itxiera dela-eta, gastu arruntean aurrezpen nabarmena izan eta izango du. Horregatik, garraio edo deskontu plangintza bat falta da, itxierak erabiltzaileei ekar diezaiekeen kaltea nolabait arintzeko. Batzordean, zinegotzi ordezkariak kiroldegiaren itxiera dela-eta egindako lana azaldu zuen, baina proposatuko plangintzari ez zion heldu. Helburua da neurriak hartzea, Altzako kiroldegia itxi dela-eta, inork ez diezaion horregatik kirola egiteari utzi.

Hori dela-eta, behean sinatzen duen zinegotziak honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du:

- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio, Altzako kiroldegiak erabiltzaileei ekar diezaiekeen kaltea arintzeko, garraio edota deskontu plangintza bat egin dezala haientzat.

Donostian 2016ko abenduaren 15ean

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia